

Armanak Uskara

edo

Z

iberouko Egunaria

1890 gerren ourtheke

Jinkoua eta Herria !
Zuhurtarizona eta lana !
Eta biñi bethi Uskalduna !
Iao ! Iao !
I-a-a-a-a-o-o-o-o-o !

Parisen

DE SOULLE enian

augirard-eko karrikan, 58^{an}



OURTHEKO SASOUAK :

BEDATSIA hasten da martchouaren	20 ^{an} .
UDA hasten da aramaiatzaren	21 ^{an} .
LARRAZKENA hasten da buruilararen	22 ^{an} .
NEGIA hasten da abentiaren	21 ^{an} .

OURTHEKO BESTA KHANBIAKORRAK :

SETUAGESIMO, *baranthailaren* 2^{an}; — HAUSTE, *baranthailaren* 19^{an}; — BAZKO, *aphirilaren* 6^{an}; — ERROGAZIONIAK, *maiatzaren* 12ⁿ, 13ⁿ eta 14^{an}; — SALBATORE, *maiatzaren* 15^{an}; — PHENTEKOSTE, *maiatzaren* 25^{an}; — BESTABERRI, *aramaiatzaren*, 5^{an}; — ABENTUKO LEHEN IGANTIA, *azarouaren*, 30ⁿ.

LAOUR THENPORAK :

Barant. 26 ⁿ , 28 ⁿ eta marzo 1 ⁿ .	}	Buruilararen 17 ⁿ , 19 ⁿ eta 20 ⁿ .
Maiatzaren 28 ⁿ , 30 ⁿ eta 31 ⁿ .		Abentiaren 17 ⁿ , 19 ⁿ eta 20 ⁿ .

EKHI ETA ARGIZAGI ULHUNTZIAK :

Ekhi ulhunte phartezkoua *aramaiatzaren* 17^{an}; ikhousiren da Frantzian, goizeko zortzi oren eta hamaba orenen artian. — Argizagi ulhunte phartezkoua, *azarouaren* 5^{an}. Ezta ikhousiren Frantzian. — Ekhi ulhunte osoua, *abentiaren* 11^{an}. Ezta ikhousiren Frantzian.





HANITCH KHASU ABIS HOUNI :

ZIBEROUKO, armanaka eginik da bi kartillaz algareki jossirik. Lehena, mehe mehia, hamabi hilabete-ren egunaria dena, ourthiaren urhentzian berhezi behar duke, nahidenaren egiteko. Bigerren kartilla edo phartia, mintzo dena istoriaz, abis hounez laborariarentako, erzetaz, etc., harek ourthe oroz behar duke begiratu arankurareki. Hollak markaturik dutuke bost ourthez arround. Bost ourthetako kartilla begiratiak, 1892^{ian} algarreki josten ahal diate libru gocho eta baliours baten egiteko. Bost ourthe horietan eman artikulien eta erezeten edirengia inprima eraziko dugu 1892^{eko} armanakaren urhentzian.

(Begiratzeko kartilla, tchipiaren barnen, egunariaren barnen date; arren aski dukezie lehen bi hollen urratzia ourthiaren burian; ber denboran azken biak urraturik dirate. Halaz eztukezie ez kartilla desegiterik, ez jostetik, eta estalgia begiratuko duzie. — Bi ourthe igaranen armanak zounbait baratzen da orano; falta edo galdu tukianak khaousituko tu Maoulen, Etcheberrienian, ber preziousan).



IGARAN BOTZKAZ

ORAIKOUAN ere gañia ukhen die gorriek. Ountsa beldur izan dira eztzirela buruzagituko; eta hen oraiko bekariousaren paterik ezta ukhen dien beldurra baizik.

Chouriak halere eztiragibeltu, bena bai aitzinatu eta errepublikaren kredita badoua bethi tchipitzez. 1881^{eko}

khanberan eztzen 80 deputatu chouri baizik Oundoko bozkan, 1885^{an} emendatu ziren 185 etara. eta bere egin ahalian nounbre tchipi horrek mendretu du gorriek egin nahi zukien gaichkia. Orai aldiz jouan da khanberalat gobernamentiaren kountre diren 210 deputatu edo chouri edo Boulanger-tiar.

1885^{an} Goberniak bazian 500,000 botzen gañia. Aourthen eztzian 170 mila baizik chouriek beno haboro. Ezta liferentzia handi sei ehun mila enplegatu bere zerbutchian dutian gobernamentiarentako. Hourak ezpalia izan, chourien aisa gaña hartuko zien. Ezpadira lokhartzen, daigun aldian goithuren tie orozbakoz gorriak : ezi hanitch lekhutan gorriak igaran dira nekeztto, eta Jinkouak jakin zounbat botz ebatsi oundouan.

Gorri ehunbat igaran dira hitzaman dielakoz Errelijioniaren kountre eztiela deus ere eginen. Bere hitza etchekiren dieia? Orai artekan egin eztielakoz beldur izateko da geroualat bardin datekiala.

Errepublikako gizoun gehienak eta famatienak Ferry, Goblet, Compayré, etc, bazterrialat ezarri tie.

Uskal Herriak eman du majoritatia chourier. Labat eta M. Etcheverry izentaturik izan dira, lehena bost ehun botzen abantallareki eta bigerrena, milarenareki, jinkouak daki errejent eta beste kargulant orok zer egin dien botz haboro bildu nahiz bi izentatien partider. Aouherretan indarkatu dira, et Biarnon beno hobeki buhurtu errejent jaoukillot sakola hutsen mehatchier. Bizi bethi chouriak et Uskaldunak, eta bethi aitzina bide hounian!



BEGITHARTE HORIEI :

- Ⓢ *erran nahi du* : Estiapen hastia *edo* argizagi bethe.
- Ⓣ " Argizagi azken laourdena.
- Ⓤ " Gorapen hastia *edo* argizagi berri.
- Ⓟ " Argizagi lehen laourdena.



OURTHARILA

Egunak luzatzen dira oren batez.




- Ⓜ a. b. 6ⁿ, goizeko 5^{or} eta 46^{min}
- Ⓛ a. l. 14ⁿ, goizeko 6^{or} eta 42^{min}
- Ⓢ a. b. 20ⁿ, arratseko 11^{or} eta 58ⁿ in
- Ⓛ l. l. 27ⁿ, arratseko 8^{or} eta 26^{min}

BARANTHAILA

Eg. luzatzen dira oren 1 eta erdiz.



- Ⓜ a. b. 5ⁿ, goizeko 1^{or} eta 23^{min}
- Ⓛ a. l. 12ⁿ, arratseko 7^{or} eta min. 1ⁿ
- Ⓢ a. b. 19ⁿ, goizeko 10^{or} eta 37^{min}
- Ⓛ l. l. 26ⁿ, arrastiriko 2^{or} eta 16^{min}



1 Astisk.OURTH.	ZIRKONZISION.	1 Neskanegun.	s. Iñazio, m.
2 Ostegun.	s. Makaire.	2 Ig. Setuaj.	KHANDERALLU
3 Ostirale.	sa Jenevieva.	3 Astelehen.	s. Blasi.
4 Neskanegun.	sa Fausta.	4 Asteharte.	sa Jana, Val.
5 Igante.	sa <i>Amelia.</i>	5 Astizken.	sa Agata.
6 Astelehen.	APHARIZIO.	6 Ostegun.	sa Dorotea.
7 Asteharte.	sa Melania.	7 Ostirale.	s. Romuald.
8 Astizken.	s. Luzien.	8 Neskanegun.	J. Johane M.
9 Ostegun.	s. Julien.	9 Igante.	<i>Setsajesimo.</i>
10 Ostirale.	s. Marzien.	10 Astelehen.	sa Eskolastika.
11 Neskanegun.	s. Teodoso.	11 Asteharte.	s. Antero.
12 Igante.	sa <i>Taziena.</i>	12 Astizken.	s. Tito.
13 Astelehen.	s. Leonze.	13 Ostegun.	s. Jilbert.
14 Asteharte.	s. Hilera.	14 Ostirale.	s. Valenti.
15 Astizken.	J. Phaoule, erm.	15 Neskanegun.	sa Faustina.
16 Ostegun.	s. Marzel.	16 Igante.	<i>Kinkajesimo.</i>
17 Ostirale.	s. Antoni, er.	17 Astelehen.	s. Hijin.
18 Neskanegun.	J. Phetir. Err. Jartia	18 Asteharte.	s. Flavien.
19 Igante.	s. <i>Kanut.</i>	19 Astizken.	HAOUSTE.
20 Astelehen.	s. Fabien eta Sebast.	20 Ostegun.	s. Eucher.
21 Asteharte.	sa Añes.	21 Ostirale.	s. Pepin.
22 Astizken.	s. Vizente.	22 Neskanegun.	J. Phetir. Ant. Jart.
23 Ostegun.	s. Remoun.	23 Igante.	GOROZUM. 1 ^a .
24 Ostirale.	s. Timote.	24 Astelehen.	s. MATHIAS, ap.
25 Neskanegun.	J. <i>Phaouleren k.</i>	25 Asteharte.	s. Zezari.
26 Igante.	s. <i>Polikarpe.</i>	26 Astizk. <i>IV Th.</i>	sa Batilda.
27 Astelehen.	Johane Kris.	27 Ostegun.	sa Onorina.
28 Asteharte.	s. Amedeo.	28 Ostir. <i>IV Th.</i>	s. Rufin.
29 Astizken.	s. Frantzes S.		
30 Ostegun.	sa Martina.		
31 Ostirale.	s. Petiri Nol.		



MARTCHOUA edo OSTAROUA

Egunak luzatzen dira 2 orenez.




- Ⓜ a. b. 6ⁿ, arratseko 6^{or} eta 57^m.
 Ⓜ a. l. 14ⁿ, goizeko, 4^{or} eta 14^m.
 Ⓜ a. b. 20ⁿ, arratseko 9^{or} eta 11^{min}.
 Ⓜ l. l. 28ⁿ, goizeko 9^{or} eta 42^m.

APHIRILA edo JORRAILA

Eg. luzatzen dira oren 1 eta erdiz.




- Ⓜ a. b. 5ⁿ, goizeko 9^{or} eta 34^{min}.
 Ⓜ a. l. 12ⁿ, goizeko 11^{or} eta 3^m.
 Ⓜ a. b. 19ⁿ, goizeko 8^{or} eta 15^{min}.
 Ⓜ l. l. 27ⁿ, goizeko 5^{or} eta min. 1ⁿ.



1 Nesk. <i>IV Th.</i>	s. LÉON, Baion.	1 Asteharte.	s. Hugon.
2 Igante.	<i>Gorozum.</i> 2 ^a .	2 Astizken.	s. Franzes P.
3 Astelehen.	sa Kunegonda.	3 Ostegun.	<i>Osteg. saintu.</i>
4 Asteharte.	s. Kasimir.	4 Ostirale.	<i>Ostir. saintu.</i>
5 Astizken.	s. Teofile.	5 Neskanegun.	<i>Nesk. saintu.</i>
6 Ostegun.	sa Koleta.	6 Igante.	BAZKO.
7 Ostirale.	s. Tomas Akin	7 Astelehen.	s. Zelestin.
8 Neskanegun.	J. Joh. Ospit.	8 Asteharte.	s. Albert.
9 Igante.	<i>Gorozum.</i> 3 ^a .	9 Astizken.	s. Akazio.
10 Astelehen.	40 Martirak.	10 Ostegun.	s. Fulbert.
11 Asteharte.	s. Konstanti.	11 Ostirale.	s. Leon handia
12 Astizken.	s. Gregori handia.	12 Neskanegun.	s. Jule.
13 Ostegun.	sa Ufrazia.	13 Igante.	sa Hermenej.
14 Ostirale.	sa Matilda.	14 Astelehen.	s. Lanbert.
15 Neskanegun.	s. Zakaria.	15 Asteharte.	s. Anastazia.
16 Igante.	<i>Gorozum.</i> 4 ^a .	16 Astizken.	sa Engrazia.
17 Astelehen.	s. Patrick.	17 Ostegun.	s. Anizet.
18 Asteharte.	s. <i>Gabriel</i> , Ark.	18 Ostirale.	s. Elutero.
19 Astizken.	s. JOSEF.	19 Neskanegun.	s. Leon IX.
20 Ostegun.	s. Joakim.	20 Igante.	s. Teotimo.
21 Ostirale.	s. Benoit.	21 Astelehen.	s. Anzelmo.
22 Neskanegun.	sa Riktruda.	22 Asteharte.	s. <i>Soler</i> eta <i>Kaio</i> .
23 Igante.	PASSIONIA.	23 Astizken.	s. Jeorji.
24 Astelehen.	s. Thebadi.	24 Ostegun.	s. Fidel.
25 Asteharte.	Anoutiazionia.	25 Ostirale.	s. MARK, Eb.
26 Astizken.	s. Braulio.	26 Neskanegun.	s. Klet eta Mar.
27 Ostegun.	s. Alesandre.	27 Igante.	s. Zerazio.
28 Ostirale.	A. B. Konpasionia.	28 Astelehen.	J. Phaoule, K.
29 Neskanegun.	s. Jonas.	29 Asteharte.	s. Phetiri, m.
30 Igante.	ERRAMU.	30 Astizken.	sa Katalina, S.
31 Astelehen.	sa Benjamin.		



ERREPUBLIKA ETA LABORARIAK



DEPUTATU gei gorriek bouhatzen deikien gezur biribil etarik bat da *Errepublikak eztiala hounki baizik egin lohitier*. Eztie bekhokeria guti : uduri laboraria ezten tchesterik oraiko denbora kanpitcha.

Hirietako ofizialen erretzetik nahiz ukhen batzarri houn, gorriek bazterrialat utzi tie laborantcharen entresak. Haiek zien ogi franko kanpotik Frantzialat uzten sartzera, erdoñañ edo legar tchipegibateki. Zouñ izan dira gorrien ezacholkeriaren ondoriouak laborarientako ? Azken bost ourthetan 275 miliouz aphaltu ogitik egiten tien sosak. Beste bihi subertetan galtzia ezta gutiago handi ; hen balia ere ñañ da aphalturik noun laborarietk galtzen beitie salzeppen erretzetik, ourthe bakhoitz 550 miliou.

Ezta oro hortan. Beste erresoumeki tratu eginak direlako, oihal eta obratzeko phastetarik Frantziak eraikiten du diharutan ehunbat miliou beste ourthez beno gutiago ; kabale, larru, ilhe eta bilgorretarik, hirour ehun miliou gutiago. Aihenaren eritarzunetarik baizik galtzia heltzen da hirour ehun miliou etara drano.

Oro juntatzez, miliarbat eta ehun miliou du arren ourthe bakhoitz galtzen laborantchak 1884 geroz. Eta jinphiden tchiptize izigarri horrek aphal erazi du etchalten eta fountsen balia, erdiaz, edo haboro zouñ lekhtan.

Zer egin du Errepublikak herstura hortan ? Etarren, laborantcharen althe behar ziren bidiak hartu ordutan,

gorrien goberniak thaiik gabe emendatu tu legarrak eta fountsetan gañen diren kargak. Hañbeste noun, orai berian laborantchak phakatzen beitu jinphiden laourdena, khountu hortan sar erazi gabe zantima haborokinak (*centimes additionnels*) zouñ lekhutan doblatzen beitie legar gehiena.

Legar horik eztziren orano aski : orai berri ezarri die beste biga. Dezagun erran zerbait berritzapen horrez.

1° Daigun ourthatsetik aitzina, etcheko jaounek beharko die phakatu ehunaren zortzi haboro legar gehienetik. Egia bada ere idoki tie herriek eta departamentiek phaka erazten tien zortzi zantima haborokinak, eta ez luke uduri khanbiorik batere badela. Bada hatik ouste dien beno liferentzia handiagobat eta houna noula. Orai artino herriek eta departamentiek eraikiten zutien zortzi zantimak instrutzioniaren fresentako, eztziren denborabat entako baizik, eta lege gabe elkhiten ahal zutien. Orai aldiz, ez herriek, departamentiek, zounbat nahi ukhenik ere, eztutukie elkhiko ahal : khanberak behar duke hortako lege berribat egin. Horra liferentziabat. Ezta berbera. Zantima haborokinak ezarririk dira legar gehienaren araouera. Gehiena handitzen bada, zantima haboro izanen da phakatzeko, ehi da ikhoustia. Ezta hortik emendio handirik izanen; bena zounbat nahi tchipi izanik ere, badate emendiobat, (hamargeren pharte baten ungunia.) *Karga berri hori ezarri die laborariari, chourien egin ahalaren bortchaz.*

2° Legar berhezibat ezarri die orano hirour ourthez soldado egon behar eztirener, zouin nahi bidez zerbutchu oroz edo pharthez libratu rik ere. Jente libratukal ezarri die sei liberatako legar fitsobat. Behar dukie bestalde phakatu jinphiden araouerako legarbat. Eta hori ez ourthebatez, ez bigez, bena 36 ourthetara drano. Ezina badu seme libratiak, aita amek beharko die phataku. Halaber, Ameriketari dutien sementako ere.

Horra noula Errepublikak orano berri emendatu tian legarrak. Horra zer egin dian laborariarentako. Eta


halere, bere obra ederrak sustengatzekouak eztirelako z badie gorriek arabegia khanberetan ziren chourien gañ ezarteko beren hutsak. Zounbait chifruk erakoutsiko deikie zer balia dian gorrien erranak. Hasteko chourier esker da igaran, kanpotik sartzen diren ogi eta kabalen gañen legarbat ezarri dian legia. Bederatzu ourthez aouherretan indarkatu dira urhenburu hortartzeko. 180 chourik (orotan baziren 185) eta 80 gorrik bai erran die lege hori. Gorri haborouek (hirour ehun igaranik) aldiz edo ez erran, edo botzik ez eman.

Chouriek eztutie ephantchatu ahal ukhen gorrien sos barreiatziak, Frantziaren khostuz, eztzirelako aski. Bena kountino hen kountra izan dira, eta zuhurtarzunaren althe. Chouriek dutie salhatu eta agert erazi *Wilsonen* ebaskeria, tratu tzar eta itchouskeriak, hetan Errepublikako presidenta bera eta Errepublikano gehienetarik aldiabat nahasirik izan beitira.

Zer agituren zen chouriak buruzagi izan balia? Egun bagunuke budjet aphaagobat; laborariet legarren bostgerren phartia gutiago phakatzeko, miliartat haboro tiretetan eta miliart zounbait gutiago zorretan.



IGANTIAREN BEGIRATZIA



LAPLACE, gizoun jakintsiak edireiten zian astia lekhu orotan eta denbora orotan, eta ez gizounek edirenik. Bai, alde orotan, egunak oro phartitzen dira zazpitarik zazpitara. Zounbat nahi hurrun gibelialat soginik, hori edireiten da. Arren, Jinkoua bera horren egilia.

Mundia kreatu zianian, baratu zen zazpigerren egunian. Moisaren legian irakourten da: « Orhit zite « Sabbat egunaren saintuki igaraitiaz; lan eginen duzu

« sei egunez, behar dena eginen duzu ; bena zazpiger-
« rena, zoure Jinko Jaounaren Sabbat (edo phaousuko)
« eguna duzu. Egun hartan lanik batere eztuzu eginen,
« ez zuk, ez zoure semiak, ez zoure alhabak, ez zoure
« mithilak, ez zoure neskatouak, ez zoure kabalek, ez
« eta zoure etchen den kanpotik jinak : zeren Jaou-
« nak egin beitu sei egunez zelia, lurra eta gaiza
« direnak oro, eta phaousatu beita zazpigerren egunian. »
Hartakoz zazpigerren eguna benedikatu dizu eta bere
zerbutchuko ezari.

Neskanegunian phaousatzeko lege hori begiraturik
izan da Jesus Krist hiletarik phitz artino. Apostoliak,
Mesiaren lehen dizipuliak, hasi zirenian pheredikatzen,
erran zien, ordutik aitzina, Naousi dibinouaren hiletarik
phiztiaren ouhouratzeko, khiristiek santifikatzeko eguna
igantia zatekiala, asteko lehena Hebreuen araou, eta
paganouek ekhiaren ouhouratzeko etchekiten ziena. Sen
Justinek, zouelarik martiriousala, Marc-Aurelen aitzinian
erran zian : « Igantia haitatu dugu algarreki biltzeko,
delakoz mundiaren kreatzeko lehen eguna, eta Jesus
Krist goure Jaounaren hiletarik phiztekoua. »

Constantin, enperadoretik hounat, printze khiristiek
legiak emaiten zutien populien obligatzeko igantiaren
begiratzera. Eta hori, ez berbera errelijioneko eginbi-
diaren betha erazteko, bena orano bere erresoumetan
odre hounaren eta phaousiaren ukheiteko. Lege egilek
dioie : « Jaounaren eguna ezpaliz Jinkouak ezarririk,
behar luke ezari, khorpitzaren indarren begiratzeko
eta gizounen artian odre hounaren ukheiteko bide segur-
renetarik bat bezala. »

Higanaoutak diren lekhetan, ezagutzen die guk beno
hobeki zazpigerren egunian phaousatu behar dela.
Anglaterra, legek debetetzen die lana igante eta besta
manhatiez, noun ezten bortchatu edo karitatez ; prozeska
edo kountratu egitia ez baliouaren phenaren pian.
Legiak debetetzen du ere ihizteka, hourian igaraitia
hatu, salbu berrogei bachtetzañi, Tamisako uhaitzian.

Frantzian aldiz tcherkhatzen dugu noula nahiko estakuru libratu nahiz igantiaren begiratzeko manutik. Holako gibelkarga horier 1863^{an} senadoretegian, Amédée Thayerek erraiten zian : « Bada erraile : ofizialia, bere familia handia haztekoz, bortchatu da lanian aritzera, egunbatez ere phaousatu gabe; beste batek : jan behar da egun oroz arren lan ere bai egin egun oroz. Nouizaz gero da arren beharrune hori? Eta noulaz elizate Frantzian baizik? »

Gizouna eztaiteke lanian hirour ehun eta hirour etan hogeï egunez arterik gabe. Hola errailek ikhous liroie hala denez berak phenan balira. Laneko tresnak phaousian uzten tie; burduñ biden lana chedaturik da : bada-kie zounbat tregouatan jouaiten ahal diren; ordarizkatzen dira zaldiak bezala. Eta nahi lukia erran ihourk, gizounak eziala behar phaousatu? Ala khorpitzeko ala ezpirituko lanari ari izan direnak badakie zer khosta zaïen. Erran haou, thai gabe, lanian ari behar dela, elhe hutsbat da. Igantia igaraiten beitzen familian aitzinetik, orai igaraiten da ostatian.

*
* *

Igantiaren santifikatzeko behar dela entzun meza, segur da; bena aski deia hanichtto Ziberoutarrek ouste dien bezala? Ez. Meza entzun eta ez haboro deusere Jinkouaren ouhouretan, ezta hori maniaren bethatzia. Igantia Jinkouaren eguna denaz geroz, hartarik phartebaten emaitia Jinkouari, ezta izaten ahal igante egunaren begiratzia. Elizak galthatzen gutu bezperetarat. Han khantatzen dira Jinkouaren laidoriouak, entzuten erran hounak, ukheiten sakramentu saintiaren beneditzioniak. Ikhoustia hañ jente guti Elizan arristiriez, phena egin-garri da artzañen eta tabernakle sakratian dagouenaren.

Bezperetan deboziona hazten da, solaz gaitzetaryak khiristiak gibeltzen, biltzen mañata (edo familia) sobera barreiatu gabe. Zounbait deskantsutarik ihour baratzen da; benakhiristi egiakzouak, solaz ounest bezala, behartu


ere hartu bidiak bizitzeko saintuki, eta hetarik hurruntzia ezta lanjerik gabe. Ezacholtarzunak erouaiten du, emeki emeki, eginbide hersienen saihetsialat uztiala.

* * *

Jaoun de Cheverus, Ameriketan misionest, gero Bordeleko archebisko, jouan zen Penobscot herrialala. Unguruneke oihanetan bizi ziren salbaje hanitch ihiztekaz eta arrantzuz. Zounbait egun hetan, lagunbateki bazouan oihanbat gainti, nouiz ere (igantebat zen) hurrunetik entzun beitzutian khantari saldo handibat. Jaoun de Cheverus behatzen da, badoua aitzina, eta haou dela entzuten diala ezagutzen dian ahairebat, meza erregerena, Frantziako elizetan besta hounez khantatzen dena. Noula bihotza hounki eta ediren zeron! Eztzena eder harentako edireitia salbaje saldobat, aphezik gabe berrogeita hamar ourthe hartan, eta orano ari igantiaren saintuki igaraiten! Ahaire eta khantatu saintiak, oihanak gainti aranatzeten eta zelu odeiak gora heltzen! Erakouspen ederra! Eztugia esker emaiteko dugun dohañaz, tugulakoz Elizak, aphezak, mezako sakrifizioua eta errelijioneko sokhorriak oro?



ERREPUBLIKA ETA ERRELIJIONIA



1884^{an}

OURTHE hortan hanitch gisatara gorriek eskarniatzen die Errelijionia : *ourtharilaren* 4^{an}, Campenon jeneralak defendatzen du soldado ehorizetetan eskorta egiler, sartzia elizetan, ordartio usatu zien besala.

Aphirilaren 3^{an}, igaran erazten die hirietako kountsellien legebat, Elizaren zuzener hanitchtto phuntutan

buruz douena. Phuntu hetarik batek dio zeñiak eztirela zerbutchatuko berbera Elizalat deitzeko, bena orano Elizatik kanpoko solazetara; hartakoz ere, Elizatik baikirik ezpada bide zeñutegiala, Elizako giltz batek izan behar diala meraren eskietan. Jinkouak badaki zounbat lekhutan hortik jadanik eskandalak izan diren, zeren eta mera gorbeltz elibat zuzen zien beno hurrunago jouan beitira.

Martchouaren 18^{an}, Paul Bertek eskoletzaz egin zian legiaren aldi. Lege horren araouera, hebentik harat ezta haizu izanen fraide eta serorer eskola egitia goberniaren khountuko. Lehiatu dira lege horren ezartera Uskal-herrian, Maoulen, Montorin, Dona-Phaleun, Irisarin, etc. Hiri horietan orotan fraide eta serorak kanpo ezarri tie jenten gougouaren eta nahiaren bortchaz. Zounbait lekhutan ere, suprefet elibatek nahi ukhen tie hartu, errejent edo erejentsa ezarteko, ordeñuz fraide edo seroren eginik izan ziren eskolak.

Arte hartan, Elizen arrotziak nouiz nahi; sekula kasik ogendunak ez hatzamanik.

Uztailaren 27^{an}, igaraiten da Khanberetan *la loi du divorce*, harginbelzek eta judiouek egina Errelijioniaren eta Khrastien sinheste saintiaren kountre. Eskountzia, algar hartietarik bata hilartio dena, zozietatiaren hountan, ahalzen du legiak chederik arrounteniala, kabalentzuntziaren bardin.

Agorrilaren 14^{eko} lege berriaz Khanberen bilzian usatu othoitzak, elizetan populiak egiten zutianak, khentzen tie gorriek. Ehi da kounprenitzia Jinkouaren lagungoua beharrik eztiela, denbora igaraiten dienek Errelijioniaren gaichki erabilten.

1880^{an}, abentiaren 29^{an} egin legia Kongregazionen kountre, hedatzen die ourthe hountan, *abentiaren* 24^{an}, praoube eta eriak kitorik ospitaletan soueñatzen tien serorer. Ospitale, Eliza eta praouben usajeko gaizak estima, eta hek orok juntaturik egiten dien kapitalaren intresa beharko die phataku Goberniari. Lehert bite

praoubiak eta eriak, dioie errepublikano gaitzek, hekila barreia ditian ber Koungregazioniak!

Azarouaren 24^{an}, Campenon jeneralak berartaz igorten tu armadako omonierak eta Khanbera gorriak phakurik haboro eztere emaiten.

1885^{an}

Ourthe hori ezateke eztiago Errelijioniarentako, *Ourtharilan*, Parisen goberniak emaiten du bere baia, *Jinkoua*, *horraelsaia*, ziouan biltzarren bati. Aldiz serorak Ivry-ko ospitaletik ohilturik dira, han zaoudien praoube chaharren damutan, oundoko hil destorbuzkouek erakatsi dien bezala. Khurutchiak ere khentzen tie Pariseko haour erien ospitaletik.

Baranthailaren 18^{an} ministrobaten maniak, geroztik ere eginik izan den bezala, Le Mans dian izena hiriaren aphezakupugouako hountarzunak, aphezkupia hil, eta salzepepetan ezar erazten tu, hen baliaren biltzeko. — Lyon-eko merak ourthouki erazten tu ilherrietako khurutchiak.

Maiatzian, Pariseko patruñaren Eliza (Ste Geneviève), Goberniak beretzen du, hanko aphezak kanpo ezarten; Eliza hartan tu ehorts erazten errelijione gabe hil izan diren gizoun famatu elibat, eta eliza borontian zen khurutchia ere jaouzi erazi du.

Ordartio eginik izan ziren laguntzak aphez gei beharduner nulutzen tu goberniak. Bazen budjetian soumabat hentako. Tchipiturik izan zen 120 mila liberaz 1877^{an}, geroztik 216 mila liberaz eta orai deus ere eztu emanen Goberniak! Aldiz, aourthen ere, 1889^{an}, gobernu katolikouen eretzian hañ zikhoitz denak laguntzen tu Judio eta higanaout ustudiantak. — Ber gisan aphaltzen du soldado ospitaletako aphezen phakia 72 mila eta 312 liberaz.

Urrietan khanbera arraberritu zen. Hanitch chouri igaran ziren ordunko botzkan, bena ez aski gorrien tzarkerien ukhura erazteko.

1886^{an}

Aphirilan fabrikabat etako naousiak zian eliza bere fountsian, goberniak zerra erazten du; ordian jandarmabatek eho zian emaztebat, eztzialakoz utzi nahi sartzera lekhu saintian eta bi gizoun kolpatu.

Arramaiazaren 9^{ian}, goberniak ephantchatzen tu aphezakupiak alkharreki biltzetik guneka, Errelijioniari daoudien gaizez mintzatzeko.

1887^{an}

Ezta Errepublika orano baratuko ourthe hortan. Aphezen phakia tchipitzen du budjetian; eta presountegietako omonieren khountia eta phakia. — Eztzaion aski haourren eta familien gaña bere aztaparren phaousatzia : nahi tu ahal oroz usu erazi *ehortzeta zibilak*, aphezgabekouak. Hen usutzeko, *azarouaren* 15^{an} legia egiten du khanberak : nourbaitek, bere biziko zer nahi adinetan izkiribuz egin zina, gisa hartan ehorts eraztez bere buria, ordeñiaren pare egin dukiala, eta eztiala hautse ahal ukhenen kountratu berribat eginez baizik. Halaz, gizounbatek, zin egin lukiana bere buriaren ehortsazteko aphezgabe, hiltzeko phuntian kounbertiturik ere, eta azken sakramentiak ukhenik, eztio haouts eraz bere zin egin, ordeñuz baizik.

Ezpazao ohartzen egin diala, gizoun fede gaber legiak emaiten du zuzena haren khorpitzaren ehortsazteko nahi dien gisa.

1888^{an}

Ezpada legerik ourthe hountan Errelijioniaren kountre, eskoletarik igorten tie, fraidiak eta serorak, eta aphezak theritatzten gisa oroz.

1889^{an}

Emazte, lanian ari direner lankhia (usine) handietan, legiak ezagutzen dere astian egun baten phaousia. Ountsa zatekian haitatu balie igantia. Eta arren, ezl ziuouen gorriek. Horrek ohart erazten deit Pariseko kontsellu gorriak egin ziana. Ezpeitzien egun oroz, despendioua handitzen zialakoz, gizen egin erazten ahal erier, haitatu zien mehe eguna ostiraletik kanpo, Errelijioniari mende-katzeko.

Aphezen phakhia ourthe oroz tchipiturik, aourthen helzen da 45 miliou tara, heltzen beitzen 1876^{an}, 53 miliou eta 727 mila libera tara. Eniz mintzatu nahi orai beste ministrouek Errelijioniari egin dien ogenez.

Aitzinekouak beno gibelago ezta nahi izan baratu azkenik gunian khanbera. Barreiatu beno lehen igaran erazi du soldadogouako legia, lege injustoua, sekula izan bada, zeren eta erresoumaren etsaier buhurtzeko estakurutan, aphez izatetik bokazionia dienak ephant-chatu nahi beitu.

Lege horren araouera, aphezgeiek ourthebat zerbutchu egin behar die kasernan, gerla denboran aldiz, erizañ, armaden oundotik douatzan ospitaletan. Deputatu chou-riek, besterik ezin ephantchatuz, abonitzen zien aphez-geiak izan litian soldado, ez kasernetan, bena berak bere gainti, oro algarreki, bokaziariaren galtzeko eriskurik gabe, eta han ikhas lezen eri soueñatzen. Halakorik ez : sobera zeren gorrier. Nahi die aphezgeien bokazionia gal erazi, hen gastaeraziz soldado saldouen artian dabilan lohikerian. Holaz, dioie, zounbait ourtheren buruko, eztate haboro, soldado jouan direnetan, aphezteko nahia dukianik.

Ditzagun zounbait hitzez erran zouin diratekian lege tzar horren ondoriouak :

1° Aphezgeiek ourthebaten zerbutchia eginen die tropetan, orok bezala. — Gero ereserbiala igaraiteko ourthian, laour asteren deithurik dirate.

Seminariouak arren zerratzén ahal dirate.

2° Aphez eta aphezakupiek 45 ourthetara drano eginen tie ereserbuko 28 egunak eta gero 13 egunak.

Ordian zerratzén ahal dutukie Elizak.

3° Erretor eta bikari bezala izentaturik ez tiren aphezék, hirour ourthe beharko die igaran armadetan.

Aphezék egiten tien eskolak arren zerra, hala noula Maouleko kolejioua.

4° Fraidiak ez tira aphez geiak bezala ourthebaten deithurik izanen, bena bai hirour ourtheren, eta berrogeita bost ourthetara drano bethe beharko tie bere klasako obligazioniak oro.

Arren fraiden eskolak zerra.

5° Soldadogouako legia jabetuko denian, erran nahi beita sei hilabeteren burian, houna zer gerthaturen den arteko diosesa bat etan : Zazpi ehun aphez bada, batak erretor dira, bestiak bikari, beste elibat aldiz edo eskola egile, edo omonier ospitale eta komentietan. Horietarik laour ehunen heña hounkiren tu legiak. *Arren parropia guziak bikari gabe dirate ; — ber denboran, berehunbat parropia erretor gabe ; — aphezék tien eskolak eta seminario tchipiak oro zerraturik.*


Sei hilabeteren burian agitzen ahal dena da, legiak hantik aitzina bere indarra oro beituke. — Eta zertan ginate sei ourtheren burian ? Parropiak eta kolejiouak utzuli phourdikaturik ; sorthu berriek eta eriek uguruki behar batheia eta oliadura, janartorak 28 egunak egin artekan.

Holla gutitan bildu tugu Errepublikak 12 ourthe hountan Errelijioniari egin tian goitzarrenak ; (cheheki khountatzeko behar lizate libru lodi lodibat). *Ikhoustia ehi da erran dugunetarik gorrien indarkak oro direla Errelijioniaren kountre. Halere, bolz galhatzera jiten zaizkunian, arapikatzen deikie goratik ezlirela Errelijioniaren etsai.*





ERREBOLUZIONE HANDIKO ISTORIA




LEHENeko erreboluzione denboran, Oloroue altheko aphezbat, gorriek (edo ordian deitzen zutien bezala, moukratek) ihes eraginik, hatzamaiten beitzien argelek, ezkapi zen gibelego borthabatetarik. Bena, jarraikiten betzeiton, hourbat behar ukhen zian trebesatu; eta, zouelarik patarbat gora adichkidebaten etchen gordatzera, so egin zian gibelialat, eta ikhousi hatzamailetarik bata hourian, indarkan, ithotzera zouela. Bere bihotzari beha, eta utzulzen da heltura egitera bere etsaiari: idokiten du itho abantzurik, eta bizkarrian erouaiten etche aizobat etara. Hari esker arrajin zenian, pharkamentu galthatu zeron egin ahalaz, aphezen adichkidetu, eta Erreboluzioniak eskarniatzen zutian aphezer egin zerbutchu handirik.

*
* *


Ber denboran, aphezbat gorde zen laborari etchebat etan. Hara jouan ziren, ulhun oundobatez jandarmak. Mañata bildurik suthoundouan zen aphezareki, arropaz khanbiaturik. Jandarmek etcheko jaounari eztzianez gordatzen aphezbat. Naousiak: « Jaounak, ikhouston duzie eztela aphezik heben; bena izan leite gorderik heben, ene jakinik gabe. Eniz bermatzen horrez; bena zien eginbidia egizie, ikher ezazie etchia oro. » Eta aphezari buruz: « Jakobe, harzak argia eta erakats itzakek chokho guziak. » Jandarmek unguria oro egin zien marmarari zirelarik eta arneguz, ountsa phakatuko ziala aphezak, hatzamaiten bazien. Etche eta bordak ikhertu zutienian aouherretan, jouan ziren. Eta abiatzian, argitu zutialakoz sutziareki, koladabateki erremestiatu zien apeha.

*
**

Andere de Lamouroux, Bordelen obra houn hanitch egin ukhen diana, erouan zien tribunaliala erreboluzione denboran. Alkhate gehienak erran zeron: « Zitoiena, akusatzen haie aitoren alhaba hizala. » Anderiak arrapostia: « Baditek; bena utzi nezak hiri galthatzera, zer den hire machelan ageri den hori. » Alkhatiak: « Zer galthoua? Eztuna arren ikhouston? Inbidiabat. Houla sorthu nun, amak emanik diñat. » — « Arren, zitaien, ni ere houla sorthurik nuk, amak ezarri nik nouble. » Behazalek erri, eta presidentak andere de Lamouroux: « Abil etcherat, haour hounbat hiz. »



ZER KHOSTATZEN DEN ERREPUBLIKA FRANTZIARI



I. — *Errepublikaren khountiak.*

ZERTAN zen Frantzia 1876^{an}, erran nahi beita chouriek majoritatia ukhen dien azken ourthian? Zertan da aourthen 1889^{an}, gorriak 12 ourthez naousi egon oundouan?

Gerlatik landa, behar ukhen zian Frantziak phakatu bost miliart Prusiari. Ordunko khanberak, zor horren phakatzeko, emendatu zutian legarrak, eta chouriek uzten zien, pia ukhen zienian, 1876^{eko} botzkan, hirour miliartetako budjetbat; eta, zorra phakatzuz geroz, bazterrialat ezarten zien ourthe bakhoitz sos ukhenen soberakina. Soberakin hora 1876^{an}, heltzen zen 250 miliou etara.

Gorriek aldiz, iretsi die soberakina, eta orano ourthe oroz 650 miliouko eska^z bat ukhen bere khountietan, nahi bada allchatu dien budjeta miliart batez.

1876^{an}, jentekal phakatzen zen 83 *libera* legar ; orai aldiz, 111 *libera*, 28 *libera* chourien denboran beno haboro. — Ordian Frantziaren zorra 30 miliart zen, eta orai 38 *miliart*, edo 8 *miliart* haboro.

Errepublikano chuchen eta bere lagunere bethi jarraiten ezten batek, aithortu du *gorrien* *gubernia* *khosta izan dela* *Frantziari*, *gerla eta Bismark* beno haboro.

II. — *Sos eskaza (déficit.)*

Lehen Errepublikak bankarot egin zian 40 miliartez ; bigerrenari eskatu zaio hirour ourtheren burian miliarbat eta 317 miliou ; hirourgerrenari, dugun houni, eskatu zaio 8 *miliart* 12 ourthez, edo 650 *miliou*, ourthe bakhointz. Erran nahi beita, bake ederrian, Errepublika khoste zaikula 1870^{eko} gerla beno haboro, Frantziak behar ukhen dianaz geroz jesan 8 *miliart*, legarrak ere emendatzen ari zirelarik. Arren.

Ourthe bakhointz **650 miliou** *eskaż.*

Hamabi ourthez **8 miliart** *eskaż.*

III. — *Budjetaren emendatzia.*

Gorrien goberniak despendiatzen du ourthian miliart bat chourienak beno haboro. Egundano ezta izan gobernurik hainbeste despendio egin dianik eta budjeta *ourthe* *kal emendatu* *miliart batez*. Orano despendio hori baizik ezpala Frantziak egari behar ! Bena bestalde dira departamentien eta hirien despendiouak, eta bester juntatez orok *bost miliart* *aousarki gaintiltzen die*, dena guk phakatu behar duguna. Ezta holako gobernuat, gorriek diouen bezala, *gobernu merkebat*.

IV. — *Zorrak eta jesailiak*

Frantziako *zorra* heltzen da 38 *miliart* etara, eta ezta erresoumarik *zorra* hañ handi dianik. Zor hori pharti

baledi Frantzes orotara, bakhotcha zordun lizate 840 liberaz. — Zor hortarik bestalde badirade beste elibat unguruz edo arartekari medioz eginak... Caisse des Dépôts et Consignations deitzen dien diharu bilkhura, beste gobernien hounkiko eztziena, zer nahi izanik ere, ezta ezkapi gorrien Errepublikaren harrapatoutgouari. Daigun igantian Kesa d'Espargnako libreten naousiak oro jouan balite bere sosen galthatzera, eztut dudarik gobernien ihoulaz ere errenda ahal litiola, sos eskazez.

V. — *Legarrak.*

Erregen denboran phakatzen zen *eguneko* 3 miliou eta 6 ehun mila libera legar. — Orai aldiz 12 miliou edo *hirouretan* haboro. gorriak buruzagi direlarik.

Laborariak berek phakatzen die budjetari 950 miliou legar, *abantzu miliart bat ourthian.*

Eta legar hori partzen bada lurrek emaiten dien errebeniueki, ehi da ikhoustia gobernien laborarier phaka erazten derela errebenio hetarik, *ehunetarik* 33, erran nahi beita heren phartia.

Eta gorriak atrebituko dira gouri mintzatzera detchemaz! Leheneko denboretan erekoiltatzen zian hamar zakutarik bat, eman behazian lohitiak eta usian uzten zien kito gutiago emanez. Errekoiltak huts egiten bazian eztzian deusere zor. Orai hirour zaku-tarik bat du eman behar, eta erekoiltak huts eginik ere phakatu behar du.

Dretcho arhintzerik ezta laborarientako, erepublika denboran, bena bai, batere behar eztzienen tako (*dégrévements de 1880*).


VI. — *Noural doua diharu hori oro ?*

Enplegatzen die, kargulant hanitch eta inutil elibaten phakatzen, phensione egiten goizegi eretretan ezarririk izan direner, etc., etc.

du ikhasi katichima, hitz llaburretan eta klarki erakous-
ten tialakoz egia jakin beharrenak. Erran gabe doua,
aphezak behar tiala haourrari erakoutsu eta esplikatu
Errelijioneko gaizak. Bena aita amek behar die laguntu
ikhaserazten bere haourari katichimaren hitza. Halaz,
aitak apheza, eta aphezak aita laguntzen die. Lehen ko-
munioneko mementoua jin denian, haourrak zounbait
ourthez katichima ikhasirik, badakike zeren egitera
abiatzen den; eta saramentu handi hori errezebitzen
den dispozione houn edo gaichtouetarik ageriko da
zer datekian haourraren oundoko kounduta.



LABORANTCHAZ



I Pariseko esposizionia eta laborantcha. 1889^{eko} errekoiltak.

AKHEN dugu aspaldi danik aiphatzen zien esposi-
zione famatia, behar ziana bereki abundantzia
erakharri goure herrialat, eta laborariek azken
ourthetan ukhen helgaitzak oro erreparatu. Zer nahi
izan dadin, ezin ukhatzen ahal da eder zela.

Dugun bi hitz laborantchako gaizak ezarririk ziren
esposizioneko phartiaz, eta gero mintzaturen gira igarai-
ten ari den ourtheke erekoiltez.

Bazen laborantchako tresna franko, bena tresna eder
hourak eztziren laborari tchipier baliatzen ahal diren
etarik. Behar da lur eremu handi eta fortunabat ez gu-
tiago handi hen erosteko eta abantallareki erabilteko.
Eta halakorik ezta guti baizik Ziberouan.

Goure herriko laborariek Esposizioniala igorri ahal
lutukien gaizak dira ardouak eta gaznak. Bena ezta ho-
rietarik egiten Ziberouko beharrunen beno hanitchez

haboro, eta jouanphidiak handiegi hen erakasteko eta igorteko Pariseat. — Bada ere Ziberouan kabale ederrik, bena zounbat lizate geñhazaletan aski aberatsik hen Pariseat erouaiteko eta han luzaz hazteko ?

Arren laborari batek eztzian abantalla handirik jouanik esposizioniaren ikhoustera. Bazen ere gaiza sobera denbora llaburrez ikhousteko, eta suberte hanitch etarrik. Bestalde ezta aski gaizen ikhoustia, jakiteko gouretako houn direnez. Ezi lur lanen egiteko mouldiak khanbio dira herribatetik bestiala, eta gunebatentako houn diren tresnak, bestebatetan ezin zerbutchatiak dira.

Eta diot ere, Esposizionia, egina izan delakoz diharia bekhan eta errekoiltak tchar ziren ourthian, houn beno haboro gaitz egin dukiala laborarier, zer nahi espantu gaseta gorriek eginik, zeren eta Frantzia orotarik hara jouailek, Parisen igorri beitie profoitu gabe diharu ederrik, bere herrietan hobeki balia eraziko zutienak. Behar dugu erran hatik, mundu hanitch izan bada esposizioniala, Ziberouko laborari guti jouan direla bere begien han bazkatzera.

Esposizioniak, hitz gutiz erraiteko, erremedia ordutan, sordeiztu du zounbait ourthe hountan laborantchak egarten dian guduka. Praoubetu badira lohitiak, Parise-tarrak aberastu dira Frantziako bazter orotarik harat jouan diren jenten khostuz; ezta estounatu behar arren hanko gasetek goratik laidaturik ere Esposizioniaren abantallak eta berer egin deitzen hougouak.

Mintza gitian orai aourthenko errekoiltez. Negiak luzaz irañ dialakoz, erekoiltak nekez eta berant hountu dira, eta udako egunaldi euritsu eta hotzek berantu tie orano haboro. Haregatik ogiak bildurik izan dira arte idor eta hountto batez, eta hourak jo oundouan jakin ukhen die zer erekoilta zen.

Parise Halapeko gasetak egindu khountia Frantzia orotan, 1889^{ian}, eraiki diela 112 miliou eta 152 mila zaku ogi, hamar gaitzurutako, erran nahi beita hogeita

bost miliou zaku igaran ourthian beno haboro. Ogi errekoilta houn izan da hogeita hamazortzi departamentutan, aski houn hogeita hamazazpi etan, tchar hamabi etan, eta ihounere gaichto. Aourthen zakiak phezu du bata beste hirouretan hogeita hamazazpi kilo igaranik; igaran ourthekouak aldiz hirour kilo gutiago phezu zian.

Malerouski Ziberouan eztie Frantziako pharte haborouetan eraiki dien ogiaren araou egin, zeren eta behe-reko ordoki handietan uda ederra egiten zian artian, goure bortu oundouetan ezpeitie mentez ukhen denbora ederrik, nahiagorik ekhia ikhousi. Bihia ere ezta hazi behar lukian bezala, uda hotz eta bousti zelakoz, nahi bada hanitch gunetan bazen lasto ountsatto.

Arthouaren errekoilta orano ogiarena beno tcharrago da, eztiialakoz ekhiak berotu. Ereitia, jorratzia, eskutat-zia, oro ebachka egin tie denbora orotan kasik, euria beitzen, eta arte hounak bekhan. Elgetan eta ordokietan nekez eta eskaz zohitu da arthoua, berant ereña eta basabazterretakoua, aldiz, batere. Gu beno malerousago dira orano departamentuko aphas ordokietan, arramaiatzeko uhaizte handiek chahu gal erazi beitutu kartiel hetako errekoiltak.

Ourthe tcharra arren Ziberouan bai ogiz, bai arthoz.

Belhar izanen zen hanitch eta dena houn eta eder. Bena denbora boustiareki haborouetan ebaki tie. Luzaz egon dira kanpouan eta pharte hounbat gastatu edo uhaiztek erouan. Aradall ere izan da ederki, eta bildu die denbora hounareki.

Lursagarra haborouetan lanhatu da eta ezta guti baizik izan Ziberouan. Fruta ere guti zen : gereziak araro, sagarrak ere; arhan eta mersika eitzen guneka baizik; gaztaña aldiz guti eta berant. Haritchak eta bagouak eztie eman ziik eta ezkurrik batere.

Ardou gutiago izan da igaran ourthian beno, bena eztie erraiten ahal, harriak chahatu eztutian herrietan, errekoilta gaichto dela. Buruilan egin dian ekhi ederrak mahatsa hazi du eta hount erazi. Halere berouñak,

orotan, usatu beno berantago egin tie. Lekhu aphaletan hasi dira mahatsaren biltzen buruilaren hogeiiian. Herroka hoiien izkiribatzen ari nizalarik mahatsa haborouetan bildurik da, ez hatik Ziberouan eta goure herria uduri kartiel menditsietan.

Erraiten ahal da ardou errekoilta arteko dela, eta dena kalitatez houn.

Goure gobernu berriak behar luke laguntu orai laboraria barnetiko eta kanpoko etsaier buhurtzera, mesura houn zounbait hartuz, hala noula, legarren tchipitez, kabaletan gañen ezarririk diren bortuko thatsen elkhittez, Frantzialat kanpotik igorten tien kabaletan gañen aldiz dret handiagouak ezarriz. Deputatu berriek nahi ukhenen tieia entzun laborarien galthouak, eta hen intresak nahi tukieia behar bezala etchekei? Beldur izateko da laborarien beharrer eztiela kasurik eginen, chouri beno haboro gorri delakoz. Eta espedientziaz badakigu noula, izentaturik direnian, gorriak trufatzen diren botzemailez. Aitzinetik ez tie bi hitz baizik ahouan : *économie*, eta *respect de la religion*. Khanberan diren bezañ sarri, hitzamanak oro ahaterik, badouatza aitzina legarrak emendatzez eta Errelijionia theritatzez gisa oroz, eta gero laborariak dezala egin nahi diana.

II. Mahasti duner aholku zounbait.

Noula hountzen ahal diren goustu gaichtoko ardouak.

Usu agitzen da, biñeren lazukeriaz, ardouek, egin oundouan, hartzen diela ountzietan goustu liferentbat (*minkhura*, *mingardura*, *sofre gozoua*), eta zounbait aldiz ere, zuganian berian. Noula berouñako tresnak, hasi beno lehen, behar dien adelatu erran, eta ezaguteraziko tugu bide segurrenak huts khiñouaren ountzier khentzeko, eta ardouer bildu tien basa goustien gal erasteko.

1^{ik} *Tresnen chahatziaz.*

Zortzi edo hamar egun berouñen aitzinetik ountsa chahatu behar dira tresnak oro. Biñeren enthelegian sar dadila ardouak hartzen dutian khiñouak, arrountian jiten zaitzola zaphatzeko edo herakitzeko zerbutchatzen diren lako, thupa edo zугanetarik.

Ourthebatez hutsik egon direlakoz, ezinago inporta du mahats zapatzeko eta herakitzeko zerbutchatzen diren ountziak, ala zourez eginik, ala mourteroz eta losaz, theiukeria orotarik eta minkhuratik chaha ditian : ezi guti aski da fardillouaren gastatzeko. Ikhous lehenik duelak bata bestiarri ountsa juntatzen direnez, ala ichourtera uzten dienez, kurkuriak aski azkar direnez. Gero ountsa trenpan direlarik, ilharri erhatz bateki minkhurak oro latsa eta kharraka. Mahatsa ountzian ezarteko phuntian, barnia boustia ahal lizate aigardentez, Bordelen egiten dien bezala.

2^{ik} *Mahatsaren bilzeko thenoriaz.*

Ardouaren kalitattia berheziki nahi dianak, behar du utzi mahatsa ountsa hountzera, bildu gabe. Ziberouan eta kartiel menditsietan berant egiten delakoz mahatsaren sukria, houn lizate haborochiago ugurukitia biltzeko. Goure boulhasouek jakin ukhen die mahatsaren aihenian uzten osoki hount artino. Irakourtu dugu maouletar, leheneko denboretan bizi zenbaten paperetan, 1675^{an}, 1692^{ian} eta 1698^{ian}, Ziberouan mahatsa eztziela bildu Jaoun Doni Marthine oundoko astian baizik. Errekoilta aberatsa, eta ardou araroua izan zen. Eztu ere berrogeita hamar ourtherik heben egin diela berouña azarouaren hatsarrian. Ezta arren beldur izan behar, eta berheziki denbora eder balinbada.

3^{ik} Zederaren berouaz.

Orok badakie mahats zaphatiak herakitzen hasi behar diala bigerren egunian, bestela zedereko airia hotzegi dela marka da, edo ekhi beroua gabe mahatsa bildurik. Zouñtarik nahi izan dadin, erremediatzen da inkhatz gorri etchekitez zounbait orenez zederaren berotzeko, zerraturik denian : heñbat bero izan behar du airiak herakia jaouzteko ; lakoua aldiz ezkaratz handi batetan denian, ephel erazi behar da, mañhubaten hartzeko heñian, fardillou bertzatabat, eta berotu oundouan ezarri lakoualat, eta hola aitzina fardilloua oro ephel artekan.

4^{ik} Kapeliaz.

Herakitziareki hantzen da graspa eta thuparen aldegañiala biltzen tchapelbaten gisa. Haoutse behar dia graspa harek eta trenpan etcheki? Eztira hortan akort ardou egiliak. Kapelia zounbaitek sartzen die hatsarrian. Geroulat, airian egoitez, ardura mingartzen delakoz damu lizate ardouareki nahastia. Houna, Tolosa oundoko mahastietan usatzen dien bide segurbat kapeliaren begiratzeko mingarduratik eta ardouan barnen etchekiteko; nour nahik egiten ahal du eta ezta deusere kostako.

Kapeliaren egitiareki, gañera ourthoukitzen da zehe houn bat lodi ogi ahotz. Herakitziak jaouz erazten dian alphora ahotza gainti ehiki badoua, eta tchapela ezta mingartzen, airiak eztiakoz hounkitzen ahal. Gero emeki emeki ogi ahotzaren pheziak sar erazten du graspa eta han etchekitzen. Ardouaren idckiteko phuntian, phalataz khentzen da ahotza. Ardou alphorez zaphouaturik delakoz, kabalek die horeki eginen besta. Hola eginez ezta batere kapeliaz arrankuratzetik. — Eztu hanitch khostako iseiatiak.

5^{ik} *Barriken chahatziatz.*

Ourthe zounbaitez hutsik egon diren ountziak eztira bethi aisa chahatzen : hour hotzak eztere khentzen minkhura urrina. Houna zer bidez berriz baliatzen ahal diren ountsi hourak.

1^o Hour hotzez chaharra aldibat eman, eta ezarri beharda barrikan hour heraki bertzatara hounbat, gero, mounhouatu, eta utzularikatu. Houra hoztiareki, hustu behar du ountziak eta kotera erazi ; idortu denian sofre mitchabat erra erazi barnen eta utzi hala hala, ountsa thapaturik, zerbutchatzeko phuntiala drano.

2^o Ahal da orano enplegatzen lan horrentako hour eta bitriol nahastekaturik [200 grama bitriol (edo *acide sulfurique*) eta 15 boutilla hour]. Tentuz eta baratch ichouri behar da houra bitriolaren gaña, eta ez bitriola houran gaña. Ezta ahatz behar ere bitriolak hounkitzen batu arropak erratzen tiala, eta larria ere bai, berik denian, eta khasu handieki maneriatu behar diala. Nahasirik denian hourareki, ichouri behar du barrikalat, eta ountzia thapaturik utzularikatu artetarik, eta chutitu bi burietarik, hour borthitz harek duelak oro hounki ahal ditzan. Gero oren zounbaiten burian, houra idok, eta goiti, zerbutchatzen ahal delakoz beste barrikabatentako. Barrika hutstia aldiz ountsa chaha hourian, berriz hourian khatiñareki eta azkenekoz, behar bada, latsun hourian. (200 gr. latsun 15 boutilla hourentako.)

6^{ik} *Ardou minthu gozoua diana.*

Gozo horren ardouari gal erazteko, behar da lehenik ardou khozatia khanbiatu ountzi garbibat etara. Ardoua emendatu behar da, barrikabaten bethia balinbada, liberabat eta erdi olio fi fresketik. Gero mouhoua, eta ardoua ountsa iharaous barrikaren utzulikatzez. Oliouak biltzen du minkhura urrina, eta ardoua hount erazten. Hirour

edo laour orenez phaousatzera utz ardoua, eta olioua goiti jouaiten da arhinago beita. Han berian uzten ahal da edo hurrupatzen pipetabateki. Halere goustu gaichto khochubat baratu baliz azki lizate barrikan zartzia ogi bi-hotz amiñibat beroturik.

7^{ik} Ardou mingartiaz

Ehun boutilla ardou mingarentako kafia bezala erra eraz ezazu godaletbat ogi bihi. Erre oundouan berorik ezar ezazu oihalezko zakuta luche mehebat etan, eta zakuta beroua khordabati chilinchaou igor ezazu mounhoutik behera ardouian trenpatzeko gisan. Boullta hounbat barrika zotukatu eta erabili oundouan, ardouaren zaflatzeko, utzi ezazu phaousatzera bi orenez. Gero thira zakuta, eta tchesta ezazu ardoua. Hounturik edirenen duzu.

8^{ik} Ardou sofraliaz.

Zounbait aldiz ardouek biltzen die sofre gozoua, bation ountziak sobera sofraturik izan direlakoz, orano idor etzirelarik; bestian usiegi eta berantegi sofratu delakoz aihena. Doian baratzia lizate hoberena. Bena, zer nahi kaousaz gastaturik, houna zouin diren ardou sofratiaren hountzeko bidiak.

1^{ik} Aski da usian kobre gorrizko ountzietan igaran eratzia : kobria hounki bezañ sarri, ardouak galtzen du bere basa gozoua. Arren arrobineta zabalturik, barrikak behardu utzi hustera bertz handibat etara, eta hantik jin araou beste barrikabat etan ezartia.

2^{ik} Hori ezpada aski, egin ahal lizate ardou minthia-
rentako bezala, ichourtia ardouan gaña olio fi tzorta bat, eta gero ountsa iharaoustia alde orotarar. Hirour edo laour orenen phaousutik landa, olioua emeki emeki ordunkoz ardouaren gañiala bildurik beitate, behar duke hantik elkhi edo hurrupatzez pipeta edo klichterbateki,

edo ardouari gainti egin eraztez barrikatik-kanpo, ardou gozo gaichto gabekobatez emendatzen delarik. Olioua, ardoua beno arhinago beita, lehenik jalkitzen da. Hobena hatik ountziz khanbiatzia. Zolala helzian, olioua eztadin igaran, beharda ardou oundarra irazi oihal tink boustibat gainti. Boustirik delakoz oihalak eztu ardoua baizik utziren igaraitera. Erran gabe doua ountziz khanbiatzeko eztela zerbutchatu behar klouabitaz.

III Gorotzaz.

« *Dobla ezak gorotzaren balia, eta doblatuko duk hire errekoilla.* »

Bethi izan niz hounkirik ikhoustonz noula Ziberouan hañkhasu guti egiten den gorotzari. Noula nahi kanpouan athebatetan ezar, eta eztien harez khasurik haboro hartzen. Eniz mintzaturen heben iraourgeiez, zeren daigun ourtheke armanakian errangei beitut zerbait. Igaraitian erranen dut hatik etche haborouetan enplegatzen den othiak guti balio diala. Hori erranik, dugun ikhous zer artha hartu behar den gorotzen ountsa erabilteko.

Uzten bada gorotza kanpouan ekhiari eta euriari phara, alhor eta sorhouetan egar tenoria jin artino, galtzen du segurrik kalitatiaren erdia. Ezta galtze horrez behar bada laboraria dudatzen; eta haregatik, deus egia-gorik. Noun da Ziberouan herribat noun ezten ikhouston, berheziki denbora eurizietan, bide bazterretako arroller gainti jouaiten gorotzaren jusa uhaitz edo errekalat?

Areta hola galtzera uzten dien jus hortan badoua gorotzak lantharentako daoukan pharterik hobena. Hanitch gaseta, laborantchaz mintzo direnak, iseiatzen dira, aspaldi danik, enthelega eraztera zer inportant den gorotzaren ountsa arthatzia, eta franko gunetan kounpre-nitu tie eta obran ezarri gaseta haiek eman abisak. Bena, malerouski, haborouetan, bekhan dira gorotzari

ountsa sogiliak, eta galtzera uzten dutie prekozione zounbait hartu faltan.

Laphourdin, ez goureganik hurrun, etche guti da, noun eztien bere gorotzer atherbia eta behar dien soueñak emaiten, eta Ziberouan ere esparantcha dugu, nahi bada ezkien moudaberri kari, Laphourdin dien berkhasia eginen diela gorotzen behar bezala egiteko. Zerbait phena eta despendio khosteko da lehen ourthian, bena gerouan jinen diren uzta ederrek phakaturentie jouanphide eginak oro. Bada zerbait egin beharra laborantchak trebesatzen dian helgaitz houni buhurtzeko.

Hountkalliaren jusa kabalen phichatik da jelkiten, eta hounek hountgarrier nahas egon oundouan zounbait orenez, galtzen du bere indar edo borthitztarzunaren pharte hounbat. Bena, analisazalek dioie galtze horregatik gorotzak begiratzten diala behar den indarra, eta balio handia. *Belgique* deitzen den erresouman, laborantcha mundian aitzinatienik den kartielian, egin die khountubat : bost ehun kilo phezu dian aberiak emaiten diala egunian hamahirour kilo phicha, balio diana hountkallu bezala zazpi sosen ungunia ; eta ourthiaren burian emaiten du berrogeita laour libera eta zortzi sosena. Horrek egiten du hamar abereentako, 444 liberaen khountia.

Goure herrian noula baliatzen gira phicha horrez? Ardurenik egoiten da kabalen thegian zounbait denboraz hountgarrier nahas, eta iaourgeiaren gorozten : hori ountsa. Bena gero badoua kanpoat, barriouan edo khantuko sorhobat etan atheturik izateko; eta hantik gorotzak dian jusik pharte hobena galduko da eta jouanen, bide bazterreko arroller behera, errekalat edo uhaitzialat. Aldiz, athian baratu gorotza, euriak frankotan latsaturen du, eta gal eraziren dero baliaren erdia.

Beste hanitch lekhutan gorotzen jusa badoua behitegitik barrioualat, han egoiteko other other eta hountgarrier nahas athian ezar artino. Athetu oundouan, athiari bar-

nia chouritzen : marka gaichki egonik eta gaichki trataturik izan dela lohitiaren ezacholkeria dela kaousa.

Noula ephantcha galtze horik oro ? Badakit net ountsa Ziberoua eztela paraturik behar bezala gorotzen ountsa egiteko. Haregatik, uduri zait lan gutibat har, eta gorotzaren jusa barreiatzetik begira deitiala ehi den bidebatez.

Gorotztopouaren egingia patar bada, egin buztan lur bi organtaz ephantchubat athiaren aldepetik bi bazterrak goiti plegatzen direlarik, amorekatik eta jusa oro bara dadin nazabat etan bezala, gorotztopouari kasik junto. Eta goiz oroz zerbait ountzi harturik, behar da ihiztatu gorotztopoua nazako jus hartarik ahal bezañ ountsa. Hola egitez, segur da gorotzek baliaren pharte hounbat begiratuoko diela.

Gorotz jusaren bilgia nekiago date lekhia plañ bada. Heben ere behar date buztan lurrez egin athiaren unguarian, eta athetik 30 zantimetra hurrun, metra erdibat gora dukian baradabat. Ountsa tinka lurra joitez, hour guti ezarten delarik, eta egin bidebat jusaren jinerazteko zilobat etara. Behar duke zilo horrek garnitu buztan lurrez ountsa tinkaturik, jusa gal eztadin ihourat ere. Eta hantik goiz oroz ountsa ihizta goroztopoua.

Horra zer bide hartu behar den gorotzen pasableki begiratzeko, eta kasik jouanphidetan sarthu gabe, simple eta ororen portadako. Erran dut pasableki begiratzeko, zeren euriari eta airiari phara den gorotza beno hobe beita atherbian eginik dena.

Ikhousi dut Laphourdin, bai eta ere Frantziako zounbait kartieletan, batiela gorotzen atherbestatzeko estolpe berhezielibat, eginik hirour pharetez metrabat eta erdi gora direnak, eta laourgerren bazterra pharete gabe, orgen hullantgiatako. Estolpe haren zola patar amiñibat sargialat, amorekatik eta jusa eraitch dadin kargagiaren khantian eginik den zilobat etara. Aldiz metrabat eta erdi gora den phareten gañen badouatza

goiti habe gisako murre karratu elibat zolaten eta estolpeko hegatzaren sustengatzeko.

Estolpiaren oundouan da phicharen edo gorotz jusaren bilgia odore ziloua eginik zimentez. Zilo hartara kabalen thegitik zouñ etchetan batie arrollak eginik, lurpez habalen phichen biltzeko. Borthabateki thapaturik bada gorotz jus bilgia hora, hanitchez jusak balioua handiagoduke.

Nourk ere nahi beituke jus hortarik ihiztatu baratzeko lanthariak edo sorkouak, aski lizate laouetakouaz haboro hour ezartia gorotz jus beno zilo hartara, eta hantik zerbutchatzia lantharen ihiztatzeko. Sorhouer, ebaki oundouan ezarten bada gorotz jus hortarik hanitch feit houna egiten du (laour ithegunetako sorhobaten beharda barrika baten heña jus, laouretan heurez emendaturik.)

Horra zer erran nahi nian aourthen gorotzen egiteko eta arhartzeko maneraz. Phentsatzen du armanak hounen irakourzalebatek edo bestek esprabi nahi ukhenen diala. Daigun ourthian mintzaturen niz barrukiez, eta berriz orano gorotzaren baliatarzunaz eta iraourgeiez.

IV. Hitzbat aihen ostouaren eritarzunari buhurtzeko bidebatez

Orai diala bi ourtheke armanakian, mildiouaren goitzeko erremediouetan mintzatu ginen erhaouts chehebatez, talkez eta bitriol bluz egina. Iseiatsu dugu gihaourek eta iseia erazi zounbait etcheke jaouni. Orogen erraniala, bouilliak beno haboro abantalla badu : 1º Erossten den bezala enplegatzen da eta hedatzen sofria bezala, bouhaderaeki, (ezpeita hori abantalla tchipia hora hurrun den mahastietan). 2º Acholik gabe bouhatzen ahal da morkhouetara : eztutu erhaoutsak bouilliak bezala theiutzen. Ezi bitriola ihitzak hourterazten du eta ordian berian bere feita egiten; talka aldiz chahatzen die euriek, eztelakoz bouillia bezala lotzen. 3º Sofratzetik

eskusatzen kasik bethi. 4° Ezta batere khario : Maou-leko garala helturik arrajiten da bost sos kiloua.

Erran bezala, segur izateko erremedio horrek feit eginen diala, hedatu behar du goiz goizetik ostouak orano ihitzez boustirik direlarik. Berantago hedatzez, hanitch barreiatzen da eta ezta hañ ountsa lotzen ostouer. Noula sobera batetan eman beilero bouhaderak, kountino etchekei behar du petik gora bouhatzian. Aihenaren erhaoutstatzeko hirour phuntiak dira : maiatzaren hamabostetik eta hogeiala, berriz hilabeteren burian, eta, azken aldikoz, uztailaren urhentziari buruz.

Halaber khaousitu dugu toumateki. Herrokabat, utzi guniana deusere egin gabe, chahu lanhatu da, eta ez eman sagarbat ere hounik. Behin edo bi aldiz erhaoutstatiek guti galdu die. Bena hamar egunetarik chuchen erhaoustatzen guntianak osoki kountserbi dira eta hazi.

Algarreki junta ahal lizate erakhar erazteko, erhaouts hori esprabi nahi dienek. Haboro batetan eta bati buruz igor eraztez, porte saria tchipitzen da. Ikhousirik erhaoutsaren erabilte ehia eta baliouza, etzaie gouri beno haboro doluturen eginen dien despentioua.



URHENTZEKO, ISTORIA EDO ERASI ZOUNBAIT

Louis Veuillot, marechal Bugeaud Aljerera laguntzian batez, noula ohart erazi zeron gerlakari handiari arratseko othoitzia.

« Jaoun marechala, badakizia zer erraiten dien Arabek? » — « Ezi eta arren, zer dioie sinheste gabe hoiek? » — « Frantziako armadako gehienek eztiela sinhesterik Jinkouatan. » — « Eta zer gatik dioie? » — « Ezpeitutie ikhouston behin ere othoitze erraiten. » —

« Ah ! hola eia !... phitz eraz ezazu subat egongia aitzinian. »

Zuhañ urrin hounez behala sua egin denian, egunaz bezañ argi beitzen gaiaz, Bugeaud belharikatzen da eta othoitziak erraiten.

Beste gai batez, hanko gizelite adichkide elibaten ikhoustera jouanik. « Goratik ari nintzan erraiten, dio Veuillot-ek, *Goure Aita*, *Agour Maria* eta Ama Birjinaren letheriñak. Hanko deizaliak eman zian othoitzaren deia. Hurrunian lehoun arramak, beste ihize elibaten tchanphak ; zohardi ederbat, gaihaldi argibat. Gibel so egin nian, eta marechal Bugeaud-en machelak behera ikhousi erorten bi nigar herroka. »

*
**

Zahar bihiak eta ardoua. — Bazen soldado moustacha zaharbat, bere denbora zerbutchian igaranik, ezpeitzian soberatu deus ere. Jouan zen errege gana eta erran bere bizia oro tropetan igaran oundouan, bazouela zaharturik, zer jan ukhen gabe. Erregek eman zeron hirour ehun libera zahar bihi. Zounbait egunen burian utzuli zen berriz galtho. Erregek : « Zer ! eztzaizia aski ukhena ? Ezteizuta orano berri eman phenzionebat ? » — « Bai, Errege jaouna : eman deitadazu zer jan ; bena ahatze zitadazu galthatzia edateko. » Erri egin erregek ; eta eman zeron galthatia.

*
**

Khantazale philda char zian bati nourbaitek erraiten beitzeron botza eder ziala, arrapostia ukhen zian : « Bai, ene botzaz egiten dit nahi dudana. » Khantian zen beste batek erran zeron : « Arren, Jaouna, segur ountsa egin ziniro egin bazintza zaragolla elibat. »

*
**

Finaoudi finaoudagoua. — Bedezi batek behar zian ferra erazi ardura zaldia. Arotzak ezpeitzian burkhiderik, behar ziala han sorkatu gogouan erabilirik, hasi zen houlache. Ferrabat berritzen zian aldikal, beste hirourak

ere bai, khountia goratchetzen beitzian halaz. Bedeziak behin beno haborotan eztzerola hori ountsa jiten; halerik aouher zian.

Aldibatez ferrazalia baraller etcheka, jouaiten bedezia-gana, othoi, haginbat idoki dizon. Baietz, ttottoeraztzen du. Armak har, gastaturik eztzen haginbati eretчек : « Ai! eztuzu hori! » — « Bena, tinkatzen dialarik, ene gizouna, haginak zaldien ferrak bezala tuzu : bat gastaturik denian, bestek jaouzi behar dizie. » Eskola ikhasi beitzian ountsa, bazian bai ferrazaliak, hitzeman bere burriari, aitzina ferra haoutsiak baizik eztziala berrituko,

*
* *

Izentatuko eztudan arrondizamentubatetan, nahi izan depututatu errepublikeñbat; bizio zounbaiten artian bat bazian, ezin gordatzen ziana : mochkortzentto ardura ardura. Harenetarik batek galthatu zian chouribati michkandibat bere adichkidebatentako : « Eta bai, banakikezu hirour. » Bena eztzian hetarik nahi : bat aouher, bestia zaharregi, hirourgerrena gutiago, mochkorzale zelakoz : « Eta othian, chouriak, erribateki, eztuzu nahi mithiltako ordizalebat, eta zoure kounfidantcha emaiten duzu ber bizioua dian kandidat bati? Bena begireizu... »

*
* *

Beste haou ere nour den eztu erranen. Enperadoriaren denboran, suprefet bati eskentzen zeren juje supleantentako jaounbat, bi ourthez aitzinetik ostaler edo taharnari zen bat. Arrapostia : « Zer! Bena eztzira zoure beithan!! Noula nahi duzu ezar ditzadan kodak (legiak) jaounbaten eskietan, eztianian behin ere erabili thipiña beharri eta kachola buztan baizik? »

Enperadoriaren denboran supleant houn eztzena, Errepublikak houn hartu du juje bakeztako.



MAIATZA edo EPHAILA

Eg. luzatzen dira oren eta laourdenez




- ☉ a. b. 4ⁿ, arratseko 9^{or} eta 18^{min}.
- ☽ a. l. 11ⁿ, arastiriko 4^{or} eta 31^{min}.
- ☉ a. b. 18ⁿ, arratseko 8^{or} eta 28^{min}
- ☽ l. l. 26ⁿ, arratseko 10^{or} eta 44^{min}.

ARAMAIATZA edo EKHAINA

Eg. luz. dira oren eta 1/4, 22^a artino.



- ☉ a. b. 3ⁿ, goizeko 6^{or} eta 44^{min}.
- ☽ a. l. 9ⁿ, arratseko, 9^{or} eta 59^{min}
- ☉ a. b. 17ⁿ goizeko 10^{or} eta 7^{min}.
- ☽ l. l. 25ⁿ, arastiriko 2^{or} eta 3^{min}.



- 1 Ostegun. s. Filipe et. Jak. Ap.
- 2 Ostirale. s. Atanasio.
- 3 Neskanegun. *Dona Khurutze*
- 4 **Igante.** *sa Monica.*
- 5 Astelehen. s. Pio V.
- 6 Asteharte. J. Johane, Eb. B.L.
- 7 Astizken. s. Justin.
- 8 Ostegun. J. Migelen ag.
- 9 Ostirale. s. Gregori.
- 10 Neskanegun. s. Antonin.
- 11 **Igante.** s. Oriens.
- 12 Astelehen. Rogazioniak.
- 13 Asteharte. s. Jenio.
- 14 Astizken. s. Bonifazio.
- 15 Ostegun. SALBATORE
- 16 Ostirale. s. Ubaldo.
- 17 Neskanegun. s. Paskal B.
- 18 **Igante.** s. *Venanzio.*
- 19 Astelehen. *sa Pudenziana.*
- 20 Asteharte. s. Bernardin S.
- 21 Astizken. s. Jermeri.
- 22 Ostegun. *sa Kiteria.*
- 23 Ostirale. s. Desire.
- 24 Nesk. *Barour.* A. B. Laguntzalia.
- 25 **Igante.** PHENTEKOSTE.
- 26 Astelehen. Filipe Neri.
- 27 Asteharte. s. M. Madal. P.
- 28 Astiz. *IV Th.* s. Urbain.
- 29 Ostegun. s. Matsimen.
- 30 Ostir. *IV Th.* s. Felis.
- 31 Nesk. *IV Th.* *sa Angela, Mer.*

- 1 **Igante.** 1 TRINITATE.
- 2 Astelehen. s. Potin.
- 3 Asteharte. *sa Klotilda.*
- 4 Astizken. s. Franzes Kar.
- 5 Ostegun. BESTABERRI.
- 6 Ostirale. s. Norbert.
- 7 Neskanegun. s. Gilbert.
- 8 **Igante.** 2 s. *Medart.*
- 9 Astelehen. *sa Pelajia.*
- 10 Asteharte. *sa Margarita.*
- 11 Astizken. s. BARNABÉ, *ap.*
- 12 Ostegun. J. Johane, Fak.
- 13 Ostirale. J. BIHOTZ SAK.
- 14 Neskanegun. s. Basila.
- 15 **Igante.** 3 *sa Jermena.*
- 16 Astelehen. s. Franzes R.
- 17 Asteharte. s. Avit.
- 18 Astizken. *sa Marina.*
- 19 Ostegun. s. Gervasi eta Prot.
- 20 Ostirale. s. Juliana Falk.
- 21 Neskanegun. s. Louis Gonz.
- 22 **Igante.** 4 s. *Paulin.*
- 23 Astelehen. s. Eusebio.
- 24 Asteharte. J. JOHANE BA.
- 25 Astizken. *sa Eurosia.*
- 26 Ostegun. J. Johane eta Paule.
- 27 Ostirale. s. Prosper.
- 28 Nesk. *Barour.* s. Irene.
- 29 **Igante.** 5 J. PETIRI eta P.
- 30 Astelehen. J. Phaouler. *or.*



UZTAILA

Egunak llaburtzen dira oren 1^{ez}.


- Ⓐ a. b. 2ⁿ, arastiriko 2^{or} eta 3 2^{min}.
 Ⓕ a. l. 9ⁿ goizeko 4^{or} eta 5 3^{min}.
 Ⓒ a. b. 17ⁿ, gaiherdi eta 59^{min}.
 Ⓓ l. l. 25ⁿ, goizeko 2^{or} eta 54^{min}.
 Ⓔ a. b. 31ⁿ, arratseko 9^{or} eta 34^m.

AGORRILA

Egunak llaburtzen dira oren 1 1/2



- Ⓕ a. l. 7ⁿ, arastiriko 2^{or} eta 28^{min}.
 Ⓒ a. b. 15ⁿ, arastiriko 4^{or} eta 39^m.
 Ⓓ l. l. 23ⁿ, arastiriko 1^{or} eta 29^m.
 Ⓔ a. b. 30ⁿ, arratseko 4^{or} eta 44^m.



1 Asteharte.	s. Tierri.	1 Ostirale.	J. Phetiri katielan.
2 Astizken.	A. B. BISITAZ.	2 Neskanegun.	s. Alfonso Lig.
3 Ostegun.	s. Gillelme.	3 Igante. 10	J. Esteberen edir.
4 Ostirale.	s. Marzial.	4 Astelehen.	s. Dominiche.
5 Neskanegun.	s. Zirile.	5 Asteharte.	A. D. M. Elhur.
6 Igante. 6	J. K. ODOL PR.	6 Astizken.	J. K. Transfig.
7 Astelehen.	s. Laourenz, k.	7 Ostegun.	s. Kajetan.
8 Asteharte.	s. Ujena.	8 Ostirale.	s. Ziriako.
9 Astizken.	s. Elisabet, p.	9 Neskanegun.	s. Jermen.
10 Ostegun.	Zazpi anaie m.	10 Igante. 11	s. Laourenz, m.
11 Ostirale.	s. Pio.	11 Astelehen.	s. Tiburze.
12 Neskanegun.	J. Johane Galbert.	12 Asteharte.	sa Klara.
13 Igante. 7	s. Anaclet.	13 Astizken.	sa Radegonda.
14 Astelehen.	s. Bonaventura	14 Ostegun.	s. Euzela.
15 Asteharte.	J. Johane Maj.	15 Ostirale.	A. D. MARIA.
16 Astizken.	A. D. M. KARM.	16 Neskanegun.	s. Rok.
17 Ostegun.	s. Aletsis.	17 Igante. 12	s. Joakim.
18 Ostirale.	s. Kamille.	18 Astelehen.	sa Elena.
19 Neskanegun.	s. Bizente Paulo.	19 Asteharte.	sa Filomena.
20 Igante. 8	s. Filibert.	20 Astizken.	s. Bernat.
21 Astelehen.	sa Pratseda.	21 Ostegun.	s. Julien Leskar.
22 Asteharte.	sa Maria Magd.	22 Ostirale.	s. Ipolita.
23 Astizken.	s. Apolinari.	23 Neskanegun.	s. Filipe Beniti.
24 Ostegun.	s. Kristina.	24 Igante. 13	s. BARTTOL., a.
25 Ostirale.	J. JAKOBE, ap.	25 Astelehen.	s. Louis, ereg.
26 Neskanegun.	sa Anna.	26 Asteharte.	s. Zefiren.
27 Igante. 9	s. Galatori. m.	27 Astizken.	s. Zezaire.
28 Astelehen.	s. Nazari eta Zelze.	28 Ostegun.	s. Agosti.
29 Asteharte.	sa Martha.	29 Ostirale.	J. Joh. lephom.
30 Astizken.	s. Abdon.	30 Neskanegun.	sa Rosa Lima.
31 Ostegun.	s. Inazio Loyola.	31 Igante. 14	s. Remoun Nonat.



BURUILA edo SETEMER

Eg. llaburtzen dira or. 1 eta 3/4 ez.




- ☿ a. l. 6ⁿ, goizeko 3^{or} eta 39^{min}.
- ♁ a. b. 14ⁿ, goizeko 8^{or} eta 2^{min}.
- ♃ l. l. 21ⁿ, arratseko 10^{or} eta 15^{min}
- ♅ a. b. 28ⁿ, arastiriko 1^{or} eta 9^{min}.

URRIETA

Eg. llaburtzen dira oren 1 eta erdiz.



- ☿ a. l. 5ⁿ, arratseko 8^{or} eta 33^{min}.
- ♁ a. b. 13ⁿ, arratseko 11^{or} eta 14^{min}
- ♃ l. l. 21ⁿ, goizeko 5^{or} eta 46^{min}.
- ♅ a. b. 27ⁿ, arrasteko 11^{or} eta 51^{min}



- 1 Astelehen. s. Vizente, Aph.
- 2 Asteharte. s. Estebe, erreg
- 3 Astizken. s. Lizier.
- 4 Ostegun. s. Taurin.
- 5 Ostirale. s. Laurens J.
- 6 Neskanegun. s. Onesifore.
- 7 **Igante.** 15 s^a Rena.
- 8 Astelehen. A. D. M. SORTZ.
- 9 Asteharte. s. Omer.
- 10 Astizken. s. Nikolas T.
- 11 Ostegun. s^a Eujenia.
- 12 Ostirale. s. Gi.
- 13 Neskanegun. s. Maurillo.
- 14 **Igante.** 16 D^{na} Khurutze.
- 15 Astelehen. s. Nikomede.
- 16 Asteharte. s. Ziprien.
- 17 Astizk. *IV Th.* s. Fren Zauriak.
- 18 Ostegun. s. Josef. Kup.
- 19 Ostir. *IV Th.* s. Janvier.
- 20 Nesk. *IV Th.* s. Eustache.
- 21 **Igante.** 17 s. MATHIU, Eb.
- 22 Astelehen. s. Maur.
- 23 Asteharte. s^a Tekla.
- 24 Astizken. A. B. Librazalia.
- 25 Ostegun. s. Firmin.
- 26 Ostirale. s. Tomas Vill.
- 27 Neskanegun. s. Josme eta Dam.
- 28 **Igante.** 18 A. D. M. Dolor.
- 29 Astelehen. J. MIGEL, ARK.
- 30 Asteharte. s. Jerome.

- 1 Astizken. s. Remi.
- 2 Ostegun. *Ainguru Begir.*
- 3 Ostirale. s. FRANZES As.
- 4 Neskanegun. s^a Aura.
- 5 **Igante.** 19 Arosar. Besta.
- 6 Astelehen. s. Bruno.
- 7 Asteharte. s^a Fide.
- 8 Astizken. s^a Brijita.
- 9 Ostegun. s. Denis.
- 10 Ostirale. s. Franzes Borj.
- 11 Neskanegun. s. Sabin.
- 12 **Igante.** 20 A. D. M. Amatarz.
- 13 Astelehen. s. Edouard.
- 14 Asteharte. s. Kalista.
- 15 Astizken. s. Beltran.
- 16 Ostegun. s. Edvije.
- 17 Ostirale. s. LUK Ebanj.
- 18 Neskanegun. s. Grat. Olor.
- 19 **Igante.** 21 A. D. M. Chahutarz.
- 20 Astelehen. s. Johane K.
- 21 Asteharte. s^a Ursula.
- 22 Astizken. s. Petiri Alk.
- 23 Ostegun. s. Leotade.
- 24 Ostirale. s. Rafael, ark.
- 25 Neskanegun. s. Krispen.
- 26 **Igante.** 22 A. D. M. Patroun.
- 27 Astelehen. s^a Sabina.
- 28 Asteharte. s. SIMOUN, Ap.
- 29 Astizken. s^a Eusebia.
- 30 Ostegun. s. Kazien.
- 31 Ostirale. s. Zirizio.



AZAROUA


Egunak llaburtzen dira oren 1^{ez}.

- ☿ a. l. 4ⁿ, arastiriko 4^{or} eta 23^{min}.
 Ⓢ a. b. 12ⁿ, arastiriko 1^{or} eta 47^m.
 ♃ l.l. 19ⁿ, eguerdi eta 54^{min}.
 ♁ a. b. 26ⁿ, arastiriko 1^{or} eta 32^{min}

ABENTIA edo NEGILA

Eg llaburtzen dira 27^{min}, 22^{no}.

- ☿ a. l. 4ⁿ, arastiriko 1^{or} eta 36^{min}.
 Ⓢ a. b. 12ⁿ, goizeko 3^{or} eta 20^{min}.
 ♃ l.l. 18ⁿ, arratseko 8^{or} eta 46^{min}.
 ♁ a. b. 26ⁿ, goizeko 6^{or} eta 6^{min}.



- | | | |
|----|-------------------|--|
| 1 | Neskanegun. | DONISANTORE. |
| 2 | Igante. 23 | <i>Ig. Otavatisé.</i> |
| 3 | Astelehen. | <i>Purg. Arimak.</i> |
| 4 | Asteharte. | s. Charles Bor. |
| 5 | Astizken. | s. Zakaria. |
| 6 | Ostegun. | s. Leonart. |
| 7 | Ostirale. | s. Florent. |
| 8 | Neskanegun. | 4 Khoroatiak. |
| 9 | Igante. 24 | <i>Elizen Sakr.</i> |
| 10 | Astelehen. | s. André Av. |
| 11 | Asteharte. | J. MARTINE. |
| 12 | Astizken. | s. Marti. |
| 13 | Ostegun. | s. Stanizlaz K. |
| 14 | Ostirale. | s. Josafat. |
| 15 | Neskanegun. | s. Jertruda. |
| 16 | Igante. 25 | s. <i>Edmon.</i> |
| 17 | Astelehen. | s. Gregori, Taum. |
| 18 | Asteharte. | s. Odon. |
| 19 | Astizken. | s ^a Elisabet, Hg ^r . |
| 20 | Ostegun. | s. Felis Valesi. |
| 21 | Ostirale. | A.B. PRESENTIA |
| 22 | Neskanegun. | s ^a Sezila. |
| 23 | Igante. 26 | s. <i>Klement.</i> |
| 24 | Astelehen. | J. Johane Kh. |
| 25 | Asteharte. | s ^a Katalina. |
| 26 | Astizken. | s. Petiri, Al. |
| 27 | Ostegun. | s. Virjile. |
| 28 | Ostirale. | s. Sostena. |
| 29 | Neskanegun. | s. Saturnin. |
| 30 | Igante. | ABENTUKO 1 ^a . |

- | | | |
|----|--------------------------------|--------------------------------|
| 1 | Astelehen. | J. ANDREU, Ap. |
| 2 | Asteharte. | s ^a Bibiana. |
| 3 | Astizken. | s. <i>Franzes Xab.</i> |
| 4 | Ostegun. | s ^a Barbara. |
| 5 | Ostirale. | s. Sabas. |
| 6 | Neskanegun. | s. Nikolas. |
| 7 | Igante. | <i>Abentuko 2^a.</i> |
| 8 | Astelehen. | A.B KONZEPZ. |
| 9 | Asteharte. | s. Jeronze. |
| 10 | Astizken. | s ^a Eulalia. |
| 11 | Ostegun. | s. Daniel. |
| 12 | Ostirale. | s. Melkiade. |
| 13 | Neskanegun. | s ^a Luzia. |
| 14 | Igante. | <i>Abentuko 3^a.</i> |
| 15 | Astelehen. | s. Mismen. |
| 16 | Asteharte. | s. Eusebio. |
| 17 | Astiz. <i>IV Th.</i> | s. Lazaro. |
| 18 | Ostegun. | s. Gazien. |
| 19 | Ostir. <i>IV Th.</i> | s. Urbain. |
| 20 | Nesk. <i>IV Th.</i> | s ^a Julia. |
| 21 | Igante 4 ^a . | <i>Abentuko 4^a.</i> |
| 22 | Astelehen. | s. TOMAS, Ap. |
| 23 | Asteharte. | s. Flavien. |
| 24 | Astizken. | s ^a Delfina. |
| 25 | Ostegun. | EGUBERRI. |
| 26 | Ostirale. | J. EZTEBE, m. |
| 27 | Neskanegun. | J. JOHANE, Eb. |
| 28 | Igante. | <i>Haour Inoz.</i> |
| 29 | Astelehen. | s. Tomas, Kant. |
| 30 | Asteharte. | s. Sabin. |
| 31 | Astizken. | s. Silvestre. |

Elections législatives du 22 Septembre 1889

ARRONDISSEMENT DE MAULÉON

Etcheverry. Berdoly

Etcheverry. Berdoly

Canton de Baïgorry.

Aldudes.....	163	32
Anhau.....	61	48
Ascarat.....	26	47
Banca.....	128	36
Bidarray.....	179	75
Irouléguy.....	55	21
Lasse.....	82	40
Ossès.....	279	110
Baïgorry.....	400	98
Urepel.....	95	28
Totaux..	1468	535

Canton d'Iholdy.

Arhansus.....	14	16
Armendaritz.....	111	30
Bunus.....	26	32
Hélette.....	168	53
Hosta.....	46	32
Ibarrolle.....	46	9
Iholdy.....	142	34
Irissarry.....	177	105
Juxue.....	30	44
Lantabat.....	92	46
Larcevau.....	64	48
Ostabat.....	16	75
Saint-Just.....	79	55
Suhescun.....	49	13
Totaux..	1051	592

Canton de Mauléon

Ainharp.....	44	25
Arrast.....	16	39
Aussurucq.....	106	25
Barcus.....	238	157
Berrogain.....	10	27
Charrite.....	3	84
Chéraute.....	105	134
Espès.....	23	94
Garindein.....	34	36
Gotein.....	57	40
Idaux.....	43	43
L'Hôpital.....	12	25
Mauléon.....	117	283
Menditte.....	43	38
Moncayolle.....	48	83
Muscudly.....	30	60
Ordarp.....	134	46

Roquiague.....	26	28
Viodos.....	36	109
Totaux..	1125	1376

Canton de St-Jean-Pied-de-Port

Ahaxe.....	102	25
Aincille.....	36	17
Ainhice.....	37	34
Arnéguy.....	60	26
Béhorléguy.....	31	8
Bussunaritz.....	54	12
Bustince.....	27	20
Çaro.....	19	21
Esterencuby.....	65	53
Gamarthe.....	36	11
Ispoure.....	41	82
Jaxu.....	59	17
Lacarre.....	25	16
Lecumberry.....	90	23
Mendive.....	54	47
Saint-Jean-le-Vieux..	157	25
St-J.-P.-de-P.....	80	188
St-Michel.....	45	50
Uhart-Cize.....	50	57
Totaux.....	1068	732

Canton de Saint-Palais


Aïciritz.....	16	40
Amendeuix.....	19	70
Amorotz.....	52	36
Arberats.....	50	13
Arbouet.....	66	43
Aroue.....	24	45
Arraute.....	56	95
Béguios.....	54	55
Béhasque.....	21	54
Beyrie.....	66	90
Camou.....	20	49
Domezain.....	75	117
Etcharry.....	12	57
Gabat.....	17	57
Garris.....	59	18
Gestas.....	30	25
Iharre.....	37	33
Ithorrotz.....	31	15
Labets.....	58	28
Larribar.....	5	60
Lohitzun.....	36	47
Luxe.....	30	42

ARRONDISSEMENT DE MAULÉON (Suite)

Etcheverry. Berdoly		Etcheverry. Berdoly	
Masparraute.....	85 14	Etchebar.....	45 7
Orègue.....	114 94	Haux.....	20 40
Orsanco.....	16 22	Lacarry.....	78 53
Osseraïn.....	19 89	Laguinge.....	42 25
Pagolle.....	57 47	Larrau.....	91 112
Saint-Palais.....	112 252	Lichans.....	26 25
Uhart-Mixe.....	1 85	Licq.....	58 106
		Montory.....	119 79
Totaux.....	1238 1692	Ossas.....	24 34
		Ste-Engrace.....	113 104
<i>Canton de Tardets</i>		Sauguis.....	32 62
Alçay.....	90 50	Tardets.....	85 122
Alos-Sibas.....	59 55	Trois-Villes.....	11 50
Camou.....	48 26	Totaux.....	941 950



Edirengia



I. Errepublika eta laborariak	65
II. Igantiaren begiratzia.	67
III. Errepublika eta erreljionia.	70
IV. Erreboluzione handiko istoria	76
V. Errepublika zer khostatzen den Frantziari.	77
VI. Haouren eraikitiaz.	80
VII. Laborantchaz	82
1° Esposizionia eta laborantcha — 1889eko ere-koiltak	82
2° Mahastiduner aholku zounbait.	85
3° Gorotzaz	90
4° Hitzbat aihen ostouaren eritazunari buhurtze-ko bidebatez.	93
VIII. Urhentzeko istoria edo erassi zounbait.	94